

IORIZT ORBEGOZO ▶ KALE GARBITZAILEA

# «Ordu txikitan adarra jotzeko gogo handia izaten du jendeak»

Kaleak garbitzeko zerbitzuak bikoizten dira Aste Nagusian; lan gogorra da, baina alde ona ere ba omen du



NAGORE IRASTORZA

## NAGORE IRASTORZA

Bi urte daramatza Ioritz Orbeagoz altxatarrak kale garbitzaile. Urtero, Aste Nagusian lan egitea egokitzen zaio, baina oro har, lan horretan gustura dagoela dio.

### **Zel in da zure lana egunotan?**

Makinarekin joaten naiz eta festaguneak garbitzeaz arduratzen naiz. Batik bat, Sagues, Kurasaala, Parte Zaharra eta Haizearen Orrazia garbitzen ditut egun hauetan

### **Lana oso ezberdina al da Aste Nagusian?**

Batez ere, jende kopurua. Jende pila izaten da kalean eta zinkinkeria bikoitza da. Kaleak izugarri zikin daude.

### **Zer ordutegi izaten duzue?**

Lan taldean, gehienok goizez lan egiten dugu, 05:00etatik 11:00etara. Arratsalde, beste talde bat garbitasuna mantentzeaz arduratzen da.

### **Zerbitzua bikoizten al da Aste Nagusian?**

Bai, ordutegiak luzatu egiten dira eta langile gehiago ere izaten da; ez soilik Aste Nagusiko

egunetan, baita udara osoan ere.

### **Lan gogorra al da?**

Nahiko gogorra. Gainera, makinarekin kontuz ibili beharra dago.

### **Ordu bdkitan jende askorekin topo egingo duzu, ezta?**

Bai, gu lanean hasten garenean, tabernak jendez lepo daude oraindik. Astelehenean, esaterako, Parte Zaharra beteta zegoen 05:00etan.

### **Parrandan dabilen jendearen artean lan egitea gogorra al da?**

Nahiko estresantea da, egia esan. Hala ere, denetatik dago. Bada lanean laguntzen zaituen jendea, erratzarekin edalontziak hurbilduz eta batuz, edo zer bait hartzera gonbidatzen zaituena.

### **Denetatik ikusiko zenuen.**

Bai, kamioi gainean jarri izan dira, mangera lapurtzen saiatu dira... Edozer gerta daiteke. Dena dela, ez dut sekula arazo larririk izan.

### **Bildu ere hamaika gauza bilduko duzue, ezta?**

Bai, edalontziak, plastikoa,

kristalak... Izugarria da zenbat zabor pilatzen den. Gainera, tabernariak guztia kanpora ateratzen dute, eta sarritan plastikozko edalontzien multzoa belaureraino iristen da.

### **Zabor gubdago al dago Udalak bultzatutako edalontzi ekologikoekin?**

Kursaaleko eszenatokian eta Saguesen asko jaso ditugu, baina Parte Zaharrean, betiko edalontziak daude.

### **Zel in da lan honen alderik okerrena?**

Jendea jasan beharra. Ordu txikitan adarra jotzeko gogo handia izaten dute batzuek.

### **Eta onena?**

Jende asko ezagutzeko aukera dagoela. Tabernari asko ezagutzen dituzu, eta gehienek zer bait hartzera gonbidatzen zaituzte. Oso giro ona izaten da haiekin.

### **Donostia oso zikina al da?**

Zikinkeria handia sortzen da, baina garbitzen duguna mantendu egiten da. Egia da garbitzaile asko garaia, baina oro har jendea nahiko garbia dela esango nuke.

ARTISAUTZA ▶ GABILTZAREN AZOKA



Denetarik dago salgai artisautza azokan. AMAIA PORTUGAL

## Eskuz egindako bitxiak salgai Kontxa inguruan

Gabiltza elkarteak azoka antolatu du asteburuan; 25 postu izango dira guztira

### AMAIA PORTUGAL

Ostiralaz geroztik, eta gaur arte, altxorren topaleku bihurtu da Vinuesa plaza. Harribitxiak, Perlaren parean. Urtero bezala, Gabiltza elkarteak artisautza azoka antolatu baitu Donostian. Guztira, 25 postu izango dira asteburu honetan bertan. Belarritakoak, haurrentzako arropak, koadroak, makilak, egurrezko apaingarriak... Denetarik dago, turisten nahiz donostiarren gozagarri.

Azoka 10:00etan zabaltzen dute egunero. Postuetako bati azken ukituak ematen ari zela harrapatu dugu Ander Gamelo-Diez. Erlojuak, esekitokiak, kaxatxoak... Denetik saltzen dute bertan, baina guztia la-bean egositako esmaltez apainduta. Donostian ondo saltzen dutela dio berak, baina ia az eguraldi txarrak eragindako zailtasunak gogoan ditu: «Enbata izan zen, eta haizeak dena harrotu zuen».

Aurtengo Aste Nagusian ere eguraldiak ez omen die gehiegi lagundu. Dena dela, haizea ez da horren gogor josten ari. Beraz, egunotan, jendea joan-etorriari dabil postu batetik bestera, nahiz eta batzuetan aterkiaren beharra izan... Daniel Fioramanteren postuak jende asko erakarpen du. Abizen italiarra duen arren, lauburuz eta beste zenbait euskal sinboloz josita dago postua. «Ama hemengo dut», azaldu dio IRUTHULOKO HITZARI. Keramikazko eta egurrezko piezak saltzen ditu berak. Horrek prezioak garestitzen ditu, eta badirudi Fiora-

mante ez dagoela oso pozik salmentekin: «Jendeak begiratu egiten du, baina ez du erosten. Denda merkeetan erosteko ohitura handiegia dute».

Juan Alkainek bost urte daramatza Vinuesa plazako azokan parte hartzen. Makilak saltzen ditu; berak egindakoak, gainera. «Urtetan aurrera egin ahala, zailago egiten zait lana», dio irribarrez. Izan ere, ez da txantxetako kontua: makila txukun bat egiteko, 50 bat ordu behar izaten dituela dio. Eta ez du beti merezitako saria jasotzen, ez baititu berak nahi adina makila saltzen. «Atzeritarrek erosten dituzte gehienbat; bertakoek ez», esan du.

Hala ere, begiratu jende mordoak begiratzen die Alkainen eta gainontzekoen artean. Donostiako bertako nahiz kanpoko asko dabilta, hara eta hona kuxuxean. Marta Berganzo gasteiztarra da haietako bat. Oporretan dabil hirian, eta ezustean egiten du topo azokarekin. «Azoka hau ikusten dudan lehenengo aldian da. Umeen arropa nahiko bitxia iruditu zait», azaldu du. Ana Iraola andoaindarra da, baina Donostian bizi da. Aurreko urteetan ere bisitatu izan du azoka: «Oso polita iruditzen zait. Koadroak eta halako kontuak atsegin ditut gehienbat».

Denen gustuetarako bitxiak daude, beraz, Gabiltzaren azokan. Bisita egin nahi duena garazi dabil oraindik. Gaur, Vinuesa plazan ezezik, Bretxan ere izango dira, gainera. Igan derako denbora pasa polita, benetan.